

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Zuzentaraua: **2009/43/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko maiatzaren 6koa, defentsarekin zerikusia duten Erkidegoko barne-produktuen transferentziei dagozkien zehaztapenak eta baldintzak sinplifikatzeari buruzkoa.**

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2009/43/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, sobre la simplificación de los términos y las condiciones de las transferencias de productos relacionados con la defensa dentro de la Comunidad» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 146/1, 2009/06/10ekoa*)»

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2009/43/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,

2009ko maiatzaren 6koa,

**defentsarekin zerikusia duten Erkidegoko barne-produktuen transferentziei
dagozkien zehaztapenak eta baldintzak sinplifikatzeari buruzkoa**

EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatua, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Tratuak xedatzen du estatu kideen arteko ondasunen eta zerbitzuen zirkulazio librerako eragozpenak desagerraraziko dituen barne-merkatu bat ezarri behar dela, eta merkatu bateratuko lehiakortasuna ez dela faltsutzen bermatuko duen sistema bat ezarri behar dela.

(2) Barne-merkatua ezartzen duten Tratuaren xedapenak ordainsari baten ordean ematen diren ondasun eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie, baita defentsarekin zerikusia duten ondasun eta zerbitzuei ere. Hala ere, estatu kideek, egoera jakin batzuetan, segurtasunari dagokionez dituzten interesak babesteko beharrezkoa dela irizten badute, bestelako neurri batzuk har ditzakete.

(3) Defentsarekin zerikusia duten produktuen Erkidego barneko transferentziei estatu kideetan aplikatzen zaizkien lege-xedapenek, erregelamenduzko xedapenek eta administrazio-xedapenek desberdintasun handiak dituzte beren artean, eta desberdintasun horiek produktu horien zirkulaziorako oztopo izan daitezke, eta barne-merkatuaren baitako lehiakortasuna faltsu dezakete, Europar Batasuneko defentsa-industriaren berrikuntza, industria-lankidetzak eta lehiakortasuna eragotziz.

(4) Estatu kideen lege- eta administrazio-xedapenen helburua da, giza eskubideak, bakea, segurtasuna eta egonkortasuna babestea. Helburu hori lortzeko kontrol-sistema zorrotzak, defentsarekin zerikusia duten produktuak ugaritzea eragozten duten murrizketak eta produktu horiek hirugarren herrialdeetara eta beste estatu kide batzuetara esportatzeko murrizketak baliatzen dituzte.

(5) Defentsarekin zerikusia duten produktuen Erkidego barneko zirkulazioari aplikatzen zaizkion muga horiek ezin dira modu orokorrean indargabetu Tratatuan ezarritako ondasunen eta zerbitzuen zirkulazio librearen printzipioak aplikatuz, murrizketa horiek

kasuz kasu justifika baitaitezke Tratuaren 30. artikuluan eta 296. artikuluan ezarritakoarekin, eta horietan zehazten diren baldintzak betez gero, estatu kideek aplikatu egin behar baitituzte.

(6) Beraz, defentsarekin zerikusia duten produktuen Erkidego barneko transferentziak sinplifikatzeko, ezinbestekoa da estatu kideen lege-xedapenak eta erregelamenduzko xedapenak bateratzea, modu horretara barne-merkatuaren funtzionamendua egokia izatea bermatu ahal izango baita. Zuzentarau honek defentsarekin zerikusia duten produktuei dagokienez aplikatzen diren arau eta prozedurei soilik egiten die erreferentzia. Beraz, ez du inolako eraginik produktu horien transferentziarako estatu kideek dituzten politiketan.

(7) Estatu kideen lege- eta administrazio-xedapenak bateratu arren, estatu kideek nazioartean dituzten betebeharrak eta konpromisoak bete beharko dituzte, eta zuhurtziaz jokatu beharko dute defentsarekin zerikusia duten produktuen esportazioan.

(8) Estatu kideak gaituta egongo dira gobernu arteko lankidetzarekin jarraitzeko eta lankidetzari hori garatzeko, baldin eta zuzentarau honetako xedapenak betetzen badituzte.

(9) Ez zaie zuzentarau hau aplikatuko Erkidegotik soilik igaro egingo diren defentsa-produktuei; hau da, ez zaie aplikatuko aduanak kanpo-mugimenduetarako ezarritako prozedura edo erabilera bera duten produktuei, eta zona franko batean edo gordetegi franko batean dauden produktuei, eta izakinen erregistro baimenduetan erregistratu behar ez direnei.

(10) Zuzentarau hau defentsarekin zerikusia duten eta Europar Batasuneko Erkidegoko Zerrenda Militarrean [3] zerrendatuta dauden produktu guztietan aplikatuko da, baita horien osagai eta teknologietan ere.

(11) Zuzentarau honez gain, aplikatu egin behar da Kontseiluak, pertsonen kontrako lurreko minei buruzko Europar Batasuneko [4] Tratuaren J.3 artikulua oinarritzat hartuta, 1997ko azaroaren 28an onartutako Erkidegoko 97/817/ASPB Ekintza. Horrez gain, estatu kideek onartzekoa eta aplikatzekoa izango da 2008ko abenduaren 3an Oslon izenpetutako Luku Munizioari buruzko Hitzarmena.

(12) Estatu kideek giza eskubideak, bakea, segurtasuna eta egonkortasuna babesteko hartutako lege-xedapenek eta erregelamenduzko xedapenek, defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentzia mugatzen dutenek, xedatzen dute, produktu horiek Erkidegoaren barnean transferitzeko, ezinbestekoa dela jatorrizko estatuak horretarako baimena ematea, eta estatu kide hartzaileek bermeak aurkeztu behar dituztela.

(13) Zuzentarau honetan helburu horiek babesteko hartutako babes-neurriak kontuan hartuz gero, Tratuaren 30. eta 296. artikuluetan xedatutakoa bete behar bada ere, ez litzateke beharrezkoa izango estatu kideek helburu horiek lortzeko bestelako murrizketarik ezarri edo mantentzerik.

(14) Zuzentarau honen aplikazioak ez du eraginik izango ordena publikoari edo segurtasun publikoari dagozkion arrazoiak tarteko beharrezkoa den xedapen ororen aplikazioan. Defentsarekin zerikusia duten produktuen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, ordena publikoarekin zerikusia duten arrazoiak garrantzi handia dute zuzentarau honi dagokionez, hala nola garraioaren segurtasunak, biltegiatzearen segurtasunak, desbideratzeko arriskuak, eta delinkuentziaren prebentzioak.

(15) Zuzentarau honez gain, aplikatzekoa da armak edukitzeari eta erosteari buruzko 1991ko ekainaren 18ko Kontseiluaren 91/477/EEE Zuzendaraua [5], eta bereziki armen Erkidegoaren barneko zirkulaziorako ezarritako formalitateak. Era berean, zuzentarau honez gain, aplikatu egin behar da Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/15/EEE Zuzendaraua, lehergaiak helburu zibiletarako merkaturatzeko eta kontrolatzeko xedapenen bateratzeari dagokiona [6], eta bereziki munizioen transferentziari dagozkien xedapenak.

(16) Defentsarekin zerikusia duten produktuei dagokienez, Erkidegoaren barnean gertatutako transferentzia oro alde aurretik lortu beharreko baimen baten menpe dago. Baimen hori transferentzia-lizentzia orokorren, globalen edo banakako transferentzia-lizentzien bitartez lortzen da, eta defentsarekin zerikusia duten produktuen jatorrizko estatu kideak eman edo argitaratu behar du. Zuzentarau honetan aipatzen diren kasu zehatzetan estatu kideek alde aurretiko baimen hori lortzeko betebeharretik salbuets ditzakete defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentziak.

(17) Estatu kideek askatasuna izango dute alde aurretiko baimena ukatzeko edo emateko. Barne-merkatua sortzeko printzipioekin bat eginez, baimen horrek baliozkoa izan behar du Erkidego guztian, eta ez da bestelako baimenik behar izango beste estatu kide batzuek zeharkatzeko edo beste estatu kide batzuen lurraldean sartzeko.

(18) Estatu kideek transferentzia-mota bakoitzerako zehaztu behar dituzte defentsarekin zerikusia duten produktuentzako edo defentsarekin zerikusia duten produktuen kategorientzako transferentzia-lizentzia egokiak. Horrez gain, eta transferentzia-lizentzia bakoitzari dagozkion zehaztapenak eta baldintzak ere zehaztu behar dituzte, eta guzti horretarako, kontuan izango dute transferentziaren sentsibilitatea.

(19) Osagaiei dagokienez, estatu kideek, ahal duten neurrian, ez diote esportazioari mugarik ezarri behar; hartzaileengan konfiantza izan behar dute, hartzaileei sinetsiz osagaia zertarako erabiliko duten adierazten dutenean, eta osagai horiek hartzaileen produktuetan duten erabilera kontuan hartu behar dute.

(20) Estatu kideek inolako diskriminaziorik gabe hautatu behar dituzte transferentzia-lizentzien hartzaileak, beren oinarrizko segurtasun-interesak babesteko ezinbestekoa denean izan ezik.

(21) Defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentzia errazteko, estatu kideek transferentzia-lizentzia orokorrak argitaratuko dituzte, transferentzia-lizentzia orokor

bakoitzeko zehaztapenak eta baldintzak betetzen dituzten enpresa guztiei transferentzia horiek egiteko baimena ematen dietenak.

(22) Transferentzia-lizentzia orokor bat argitaratu behar da indar armatuei defentsarekin zerikusia duten produktuak transferitzen zaizkienerako, horrela produktu horiek Erkidegoaren barnean erostea erabakitzen duten estatu kideentzako hornikuntza ziurtatuko baita.

(23) Transferentzia-lizentzia orokor bat argitaratu behar da ziurtagiria duten Europako defentsa-enpresetara osagaiak transferitzeko, modu horretara enpresa horien arteko lankidetzeta eta integrazioa sustatuko baita, bereziki hornidura-kateen eta eskala-ekonomiaren optimizazioa erraztuz.

(24) Gobernu arteko lankidetzeta-programetan parte hartzen duten estatu kideek transferentzia-lizentzia orokor bat argitara dezakete, programan parte hartzen duten gainerako estatu kideetako hartzaileei lankidetzeta-programa egikaritzeko ezinbestekoak diren defentsa-produktuak transferitzen zaizkienerako. Horrela, gobernu arteko lankidetzeta-programan parte hartzen duten estatu kideetako enpresen egoera hobetuko litzateke programa horietan parte hartzeko baldintzei dagokienez.

(25) Estatu kideek transferentzia-lizentzia orokor berriak argitaratu ahal izango dituzte, produktuen izaera eta hartzaileak kontuan hartuta, eta, betiere, frogatuz lizentzia hori emateak ez dituela arriskuan jarriko giza eskubideak, bakea, segurtasuna eta egonkortasuna.

(26) Transferentzia-lizentzia orokorra argitaratu ezin den kasuetan, estatu kideek, aldeztatik horretarako eskaera jaso ondoren, enpresa zehatzei transferentzia-lizentzia globala eman beharko diete, zuzentarau honetan zehazten diren kasuetan izan ezik. Estatu kideek transferentzia-lizentzia orokor berriagarriak eman ditzakete.

(27) Enpresek agintari eskudunei jakinarazi behar diete transferentzia-lizentzia orokorrak nola erabiltzen dituzten, kontrol demokratikoa bermatzeko xedez, giza eskubideak, bakea, segurtasuna eta egonkortasuna babesteko, eta defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentziaz ahalik eta informazio gardenena emateko.

(28) Estatu kideek transferentzia-lizentzia orokorren, globalen eta banakako zehaztapenak eta baldintzak ezartzeko duten jarduteko aukerak estatu horiek esportazioen kontrolari dagokion nazioarteko esparruetan lankidetzan jarraitu ahal izatea ahalbidetu behar du. Esportazio batetarako baimena ematea edo ukatzea estatu kideen esku dagoenez, eta etorkizunean ere hala egon beharko lukeenez, lankidetzeta horrek esportazioari dagozkion politiken borondatezko koordinazioaren ondorio izan behar du.

(29) Jatorrizko estatu kideetan defentsarekin zerikusia duten produktuen *ex ante* banakako kontrola produktu horien *ex post* kontrol orokor bilakatzen ari da pixkanaka, eta bilakaera hori konpentsatzeko, elkarrekiko konfiantza lortzeko baldintzak sortu behar dira, besteak beste, bermatu beharko da ez direla esportazioetarako ezarritako mugak urratuko, eta produktu horiek ez direla hirugarren herrialdeetara esportatuko. Era berean, printzipio hori

bete behar da, defentsarekin zerikusia duten produktuak hirugarren herrialde batera esportatu aurretik, zenbait estatu kideren artean transferitu badira.

(30) Estatu kideek lankidetzan dihardute Kontseiluaren 2008ko abenduaren 8ko 2008/944/ASPB Jarrera Bateratuaren esparruan. Jarrera Bateratu horrek teknologien eta tresneria militarren esportazioen kontrola arautzen duten arau komunak ezartzen ditu [7], irizpide komunak aplikatuz, eta ukazioa jakinarazteko eta kontsultarako mekanismoak aplikatuz, defentsarekin zerikusia duten produktuak hirugarren herrialdeetara esportatzeko ezarritako politiken aplikazioa bateratzeko. Zuzentarau honek ez du eragotzi behar estatu kideek defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentzia-lizentziatarako zehaztapenak eta baldintzak ezarri ahal izatea, horien artean esportazioetarako mugak, batez ere hori egitea beharrezkoa bada aipatutako Jarrera Bateratuaren esparruan lankidetzazustatzeko.

(31) Hornitzaileek hartzaileei jakinarazi behar dizkiete transferentzia-lizentzien mugaketak, bereziki hartzaileak produktu horiek hirugarren herrialdeetara esportatzeko eskaera egiten duenean, horrela, hornitzaileek konfiantza izango baitute transferentzia amaitu ondoren hartzaileek muga horiek errespetatzeko duten gaitasunean.

(32) Enpresek erabaki behar dute transferentzia-lizentzia orokor batek defentsarekin zerikusia duten produktuak hartzeko ematen duen aukera baliatuz lortutako irabaziek ziurtagiriaren eskaera justifikatzen ote duten. Zenbait enpresen arteko transferentziatarako ezinbestekoa da transferentzia-lizentzia orokor bat izatea, taldeko kideak beren enpresak ezarrita dauden estatu kideetako ziurtagiria badute.

(33) Elkarrekiko konfiantza izateko ezinbestekoa da ziurtagiriatarako irizpide bateratuak izatea, hartzaileek, beste estatu kide baten transferentzia-lizentziari esker lortutako defentsa-produktuei aplikatzen zaizkien esportaziorako mugak errespetatuko dituztela sinestea ezinbestekoa baita.

(34) Elkarrekiko konfiantza hori lortzeko, transferentzia bitartez lortutako defentsa-produktuak ez dira esportatu behar transferentzia lizentziak esportaziorako mugak ezarriz gero.

(35) Produktuak hirugarren herrialdeetara esportatzeko lizentzia bat eskatzean, enpresek agintari eskudunei jakinarazi behar diete transferentzia-lizentzia eman zuen estatu kideak defentsarekin zerikusia duten produktuaren esportazioari ezarritako mugak betetzen dituzten ala ez. Horri dagokionez, kontuan izan behar dugu 2008/944/ASPB Jarrera Bateratuan xedatutako estatu kideen arteko kontsultarako mekanismoak duen garrantzia.

(36) Erkidegoko kanpo-mugan enpresek esportazio-lizentziaren frogak eman beharko dizkiete aduanako agintari eskudunei transferentzia-lizentzia baten bitartez lortu duten eta defentsarekin zerikusia duen produktu bat hirugarren herrialde batera esportatu nahi izanez gero.

(37) Defentsarekin zerikusia duten produktuen zerrenda, eranskinean ikus daitekeena, Europar Batasuneko Erkidegoko Zerrenda Militarraren arabera eguneratu behar da.

(38) Elkarrekiko konfiantza gero eta handiagoa izan dadin, ezinbestekoa da estatu kideek zuzentarau honetako xedapenak betetzeko neurri eraginkorrak, baita zehapenak ere, ezartzea. Neurri horien artean, enpresek defentsarekin zerikusia duten produktuak transferitu ondoren ziurtagiriak egiteko irizpide bateratuak eta produktu horiek erabiltzeko mugak errespetatuko dituztela bermatzen duten neurriak hartu behar dira.

(39) Jatorriko estatu kide batek uste badu litekeena dela ziurtagiria duen hartzaile batek transferentzia-lizentzia orokorrari dagozkion baldintzetakoren bat ez errespetatzea, edo lizentzia eman zuen estatu kideak uste badu egoera horrek eragina izan lezakeela ordena publikoan, segurtasun publikoan edo segurtasunaren esparruan estatu horrek dituen oinarrizko interesetan, egoera hori gainerako estatu kideei eta Batzordeari jakinarazteaz gain, hartzaile horrek dituen transferentzia-lizentzia orokorrak aldi baterako bertan behera uzteko gaitasuna izango du, estatu horren ardura baita giza eskubideak, bakea, segurtasuna eta egonkortasuna babestea.

(40) Elkarrekiko konfiantza sustatzeko, zuzentarau hau betetzen dela bermatzeko hartutako lege-xedapenen, erregelamenduzko xedapenen eta administrazio-xedapenen aplikazioa atzeratu egin behar da. Horri esker, xedapen horiek aplikatu baino lehen, egindako aurrerapenak ebaluatu ahal izango dira, Batzordeak prestatutako txostena erreferentzia modura hartuz. Txosten hori hartutako neurriei buruz estatu kideek egin zuten txostena oinarritzat hartuta prestatu zuen Batzordeak.

(41) Batzordeak zuzentarau honen aplikazioari buruzko txosten bat argitaratu behar du aldian-aldian, eta egoki irizten badio, txostenarekin batera lege-proposamenak aurkez ditzake.

(42) Zuzentarau honek, Tratatuaren 306. artikuluan aurreikusten den modura, ez du eraginik Belgikaren eta Luxenburgoren arteko eskualde-elkarketan edo elkarketaren hobekuntzan, ez eta Belgika, Luxenburgoko eta Herbehereen arteko elkarketan ere.

(43) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dutela zuzentarau honen xedea —barne-merkatuaren funtzionamendu egokia lortzeko defentsarekin zerikusia duten produktuen Erkidego barneko transferentzian aplika daitezkeen arau eta prozedurak sinplifikatzea— beren kasa behar bezala lortu, lizentziak emateko gaur egungo prozeduren arteko desberdintasunak, eta transferentzien mugaz haraindiko izaera tarteko, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuako 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, helburu horiek lortzeko beharrezko diren neurriak hartzera mugatzen da zuzentarau hau.

(44) Kontseiluak 1999ko ekainaren 28an hartutako 1999/468/EE Erabakian ezarritakoari jarraituz, zuzentarau hau betetzeko behar diren neurriak onartuko dira. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko [8].

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(45) Komenigarria da Batzordeari eranskina eraldatzeko eskumena ematea. Neurri horiek orokorrak eta zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(46) Instituzio arteko «Legegintza hobetzea» Akordioaren [9] 34. puntuan arautzen denari jarraiki, estatu kide orok bere taula egin dezan sustatu nahi da, bai eta horiek argitara ditzaten ere, ahal den neurrian zuzentarau hau eta transposizio-neurriak bat nola datozen erakusteko, hori onuragarria izango baita bai estatuentzat, bai Erkidegoarentzat.

HONAKO ZUZENTARAU HAU EMAN DUTE:

I. KAPITULUA

XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

1. artikulua

Xedea

1. Zuzentarau honen helburua da Erkidego barnean defentsarekin lotutako produktuak transferitzeko bete behar diren arauak eta prozedurak sinplifikatzea, barne-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeko.
2. Zuzentarau honek ez du eraginik izango estatu kideek defentsarekin zerikusia duten produktuen esportazioan izan beharreko zuzentzeriaz.
3. Zuzentarau honen aplikazioa Tratatuaren 30. eta 296. artikuluen mende egongo da.
4. Zuzentarau honek ez du eraginik izango estatu kideek gobernu arteko lankidetzarekin jarraitzeko eta lankidetzaren hori garatzeko duten gaitasunean, zuzentarau honetako xedapenak betetzen badituzte.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

Zuzentarau hau defentsarekin zerikusia duten produktuetan aplikatuko da. Eranskinean ageri da produktu horien zerrenda.

3. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira oinarri:

- 1) "defentsarekin zerikusia duen produktua": eranskineko zerrendan ageri den produktu oro;
- 2) "transferentzia": hornitzaile batek beste estatu kide bateko hartzaile bati defentsarekin zerikusia duen edozein produktu helarazteko egindako transmisio edo mugimendu oro.
- 3) "hornitzailea": transferentzia baten ardura duen Erkidegoko edozein pertsona fisiko edo juridiko;
- 4) "hartzailea": transferentzia bat hartzeko ardura duen Erkidegoko edozein pertsona fisiko edo juridiko;
- 5) "transferentzia-lizentzia": Estatu kide batek hornitzaileei ematen dien baimena, beste estatu kide bateko hartzaile bati defentsarekin zerikusia duen produktu bat transferitzeko.
- 6) "esportazio-lizentzia": hirugarren herrialde bateko pertsona juridiko edo fisiko bati defentsarekin zerikusia duten produktuak emateko baimena.
- 7) "igarotzea": defentsarekin zerikusia duten produktuak, jatorrizko estatu kidetik estatu kide hartzailera bidean, jatorrizko estatu kidea edo estatu kide hartzailea ez den beste estatu kide batean edo batzuetan zehar garraiatzea.

II. KAPITULUA

TRANSFERENTZIA-LIZENTZIAK

4. artikulua

Xedapen orokorrak

1. Estatu kideen artean defentsarekin zerikusia duten produktuak transferitu ahal izateko aldez aurretiko baimen bat behar da. Beste estatu kide batzuetatik igarotzeko edo defentsarekin zerikusia duten produktuen hartzailea dagoen estatuan sartzeko ez da beste estatu kideren batek emandako baimenik behar. Hala ere, segurtasun publikoko edo ordena publikoko arrazoiak tarteko -esate baterako, garraioaren segurtasuna-, estatu horiek beharrezko xedapenak aplikatu ahal izango dituzte.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa bete egin behar bada ere, estatu kideek erabaki dezakete, defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentziari dagokionez, aldez aurretiko baimena izatea ez dela derrigorrezkoa. Erabaki hori honako kasu hauetan har dezakete:

- a) hartzailea gobernuko organo bat denean edo indar armatuetako kidea denean;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

b) hornikuntza Europar Batasunak, NATOk, EANak edo gobernu arteko beste erakunderen batek egiten badu, bere misioa betetzeko;

c) transferentzia beharrezkoa bada armamentuaren esparruko estatu kideen arteko lankidetzaprograma bat gauzatzeko;

d) hondamendiren bat gertatuz gero, transferentziak laguntza humanitarioarekin zerikusia duenean edo transferentzia larrialdi batean dohaintza modura egiten denean; edo

e) transferentzia ezinbestekoa denean konponketa-lanetarako, mantentze-lanetarako, erakustaldietarako edo frogak egiteko, edo jarduera horiek amaitzean.

3. Estatu kide batek hala eskatuta edo bere kabuz, Batzordeak 2. paragrafoa alda dezake ondorengo kasuetan:

a) transferentziak ordena publikoan edo segurtasun publikoan eraginik ez duenean;

b) zuzentarau hau onartu ondoren estatu kideek hartzen dituzten nazioarteko konpromisoak bateragarriak ez direnean aldeaz aurretik baimena eskatzeko betekizunarekin, edo

c) 1. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den gobernu arteko lankidetzarako ezinbestekoa denean.

Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (osatu ere egin dezaketenak), 14. artikuluko 2. paragrafoan adierazitako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

4. Estatu kideek bermatu behar dute beren herrialdeetatik defentsarekin zerikusia duten produktuak transferitu nahi dituzten hornitzaileek transferentzia-lizentzia orokorrak erabili ahal izatea, edo 5., 6., eta 7. artikuluek agindutakoa betez, transferentzia-lizentzia globalak edo banakako transferentzia-lizentziak eskatu ahal izatea.

5. Artikulu honetan eta 5., 6., eta 7. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, estatu kideek zehaztuko dute defentsarekin zerikusia duten produktuak edo defentsarekin zerikusia duten produktu-motek zer nolako transferentzia-lizentzia behar duten.

6. Estatu kideek zehaztuko dituzte transferentzia-lizentzien zehaztapenak eta baldintzak, horien artean hirugarren herrialdeetako pertsona fisikoei edo juridikoei defentsarekin zerikusia duten produktuak esportatzeko ezarritako mugak, kontuan izanda, besteak beste, transferentziak giza eskubideen, bakearen, segurtasunaren eta egonkortasunaren babesean eragin ditzakeen arriskuak. Betiere Erkidegoko zuzenbidea errespetatzen bada, estatu kideek azken erabiltzaileen ziurtagirian bildutako azken erabilerarako bermeak eska ditzakete.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

7. Estatu kideek, transferentzia horren izaeran oinarrituta, osagaien transferentzia-lizentziatarako zehaztapenak eta baldintzak zehaztuko dituzte, besteak beste honako elementu hauek kontuan hartuz:

a) osagaien izaera, zein produktutan erabiliko diren, eta produktu horiek amaitzean izan dezaketen edozein erabilera kezkarri;

b) osagaiak azken produktu horietan duten garrantzia.

8. Osagaien transferentzia arriskutsua izan daitekeenean izan ezik, hartzaileak osagai horiek bere produktuan txertatzeko erabiliko dituela, eta ondorioz, mantenu eta konponketetarako izan ezean, ez direla gehiago transferituko edo esportatuko adierazten badu, estatu kideek ez diote mugarik jarriko osagaien esportazioari.

9. Estatu kideek eman dituzten transferentzia-lizentzien erabilera ezeztatze, indargabetzeko edo mugatzeko eskumena dute, beren segurtasunerako oinarritzko interesak babesteko beharrezkoa bada, ordena publikoko edo segurtasun publikoa mantentzeko beharrezkoa bada, edo transferentzia-lizentziako zehaztapenak eta baldintzak errespetatzen ez badira.

5. artikulua

Transferentzia-lizentzia orokorrak

1. Estatu kideek transferentzia-lizentzia orokorrak argitaratuko dituzte, eta horien bitartez, herrialde horretako lurretan ezarritako hornitzaileek, transferentzia-lizentzian ezarritako zehaztapenak eta baldintzak betetzen dituztenek, transferentzia-lizentzia horretan zehaztuta egon behar duten eta defentsarekin zerikusia duten produktuak transferitu ahal izango dizkiote beste estatu kide batean ezarritako hartzaile bati edo batzuei.

2. 4. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoa bete egin behar bada ere, transferentzia-lizentzia orokorrak ondorengo kasuetan argitaratuko dira gutxienez:

a) hartzailea estatu kide bateko indar armatuetako kide denean, edo defentsaren esparruko agintari kontratugile bat denean eta agintari kontratugile horrek produktu horiek estatu kide bateko indar armatuek erabiltzeko soilik erosten dituztenean;

b) hartzailea 9. artikuluan xedatutakoaren arabera enpresa ziurtatua denean;

c) transferitzen diren produktuak egiaztapenatarako, ebaluaziorako eta erakustaldietarako erabiltzen direnean;

d) hartzailea defentsarekin zerikusia duten produktuen jatorrizko hornitzailea denean, eta transferentziaren helburua mantenu-lanak egitea edo konponketak egitea denean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Defentsarekin zerikusia duten produktuen garapena, ekoizpena eta erabilera helburu duten estatu kideen arteko gobernu arteko lankidetzaprogrametan parte hartzen duten estatu kideek transferentzia-lizentzia orokor bat argitara dezakete programan parte hartzen duten estatueta programa gauzatzeko ezinbestekoak diren transferentziak egiteko.

4. Estatu kideek erregistrarako baldintzak zehatz ditzakete transferentzia-lizentzia orokor bat lehen aldiz erabili baino lehen, zuzentarau honetako gainerako ezarpenak bete egin behar badira ere.

6. artikulua

Transferentzia-lizentzia globalak

1. Estatu kideek transferentzia-lizentzia global bat eman diezaiokete banakako hornitzaile bati, hornitzaileak hala eskatuz gero. Transferentzia-lizentzia global horri esker, hornitzaileak defentsarekin zerikusia duten produktuak transferi diezazkioke estatu kide batean ezarritako hartzaile bati edo hainbat estatu kideetako hainbat hartzailei.

2. Transferentzia-lizentzia bakoitzean estatu kideek zehaztu beharko dute zein diren lizentziak estaltzen dituen defentsa-produktuak edo produktu-motak, eta zein diren baimendutako hartzaileak edo hartzaile-motak.

Transferentzia-lizentzia globalak hiru urtez egongo dira indarrean, eta horren ondoren estatu kideek berri egin ditzakete.

7. artikulua

Banakako transferentzia-lizentziak

Estatu kideek banakako transferentzia-lizentziak eman diezazkiokete hornitzaile jakin bati, hark hala eskatzen badu. Banakako transferentzia-lizentzia horri esker, hornitzaile horrek defentsarekin zerikusia duen produktu-kopuru jakin bat transferi diezaiokete hartzaile bati, bidalketa batean edo batean baino gehiagotan. Banakako transferentzia-lizentziak ondorengo kasuetan emango dira:

- a) transferentzia-lizentzia hori transferentzia bakar bat egiteko eskatzen denean;
- b) transferentzia-lizentzia hori ezinbestekoa denean estatu kidearen segurtasunerako oinarritzko interesak eta ordena publikoa babesteko;
- c) estatu kideen betebeharrak eta nazioarteko konpromisoak betetzeko ezinbestekoa denean; edo
- d) estatu kide batek arrazoiak baditu pentsatzeko hornitzaileak ez dituela transferentzia-lizentzia global bat eskuratzeko beharrezko zehaztapen eta baldintza guztiak beteko.

III. KAPITULUA

TRANSFERENTZIAREN ONDORENGO INFORMAZIOA, EGIAZTAPENA ETA ESPORTAZIOA

8. artikulua

Hornitzaileen ardurapeko informazioa

1. Estatu kideek ziurtatu behar dute defentsarekin zerikusia duten produktuen hornitzaileek produktu horren azken erabilerarekin edo esportazioarekin zerikusia duten zehaztapenei eta baldintzei buruzko informazioa ematen dietela hartzaileei, bai eta transferentzia-lizentzian ezarritako mugena ere.

2. Hornitzaileek defentsarekin zerikusia duten produktuen transferentziaren jatorrizko estatu kideetako agintari eskudunei jakinarazi behar diete transferentzia-lizentzia orokor bat lehen aldiz erabiltzeko asmoa dutela. Estatu kideen egitekoa da egiaztatzea jakinarazpen hori arrazoizko epe baten baitan egin dela. Estatu kideek zehaztu ahal izango dute, defentsarekin zerikusi duten produktuak transferentzia-lizentzia orokor bati jarraiki transferitzerakoan, produktu horri buruz zer informazio osagarri eska dezaketen.

3. Estatu kideek aldian-aldian egiaztatu eta ziurtatuko dute hornitzaileek, beren jatorrizko estatu kideetan indarrean dagoen legediari jarraiki, egiten dituzten transferentzien erregistro zehatzak eta osoak dituztela. Horrez gain, estatu kideek transferentzia-lizentzia orokorren, globalen edo banakako transferentzia-lizentzien erabilerarekin zerikusia duten informazio-betekizunak zehaztuko dituzte. Erregistro horietan merkataritza-dokumentuak bilduko dituzte eta dokumentu horietan ondorengo informazioa jaso behar dute:

a) defentsarekin zerikusia duten produktuaren deskribapena, eta eranskinean xedatutakoari jarraiki dagokion erreferentzia;

b) defentsarekin zerikusia duen produktuaren kopurua eta balioa;

c) transferentzien datak;

d) hornitzailearen eta hartzailearen izena eta helbidea;

e) ezagutuz gero, zein diren defentsarekin zerikusia duen produktuari emango zaion azken erabilera eta azken erabiltzailea; eta

f) defentsarekin zerikusia duten produktuen hartzaileak transferentzia-lizentziako esportazio-mugak ezagutzen dituela frogatzen duen agiria.

4. Estatu kideen egitekoa izango da ziurtatzea hornitzaileek 3. paragrafoan aipatzen diren erregistroak dagokion estatu kidean indarrean dagoen legeriak eragiketa ekonomikoen erregistroak gordetzeko ezarritako epean zehar behintzat gordetzen dituztela, eta gutxienez,

transferentzia egindako urte zibila amaitu ondorengo hiru urteetan gordetzen dituztela. Informazio hori eskatzeko kontuan izan behar dugu hornitzaileak defentsarekin zerikusia duten produktuak zein estatu kidetatik transferitu zituen, herrialde horretako agintari eskudunek eskatzen badute soilik emango baita informazio hori.

9. artikulua

Egiaztapena

1. Estatu kideek izendatuko dituzte beren lurraldean ezarrita dauden eta defentsarekin zerikusia duten produktuen hartzailleak egiaztatzekeo ardura izango duten agintari eskudunak, 5. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian ezarritako xedapenei jarraiki, beste estatu kide batzuk argitaratutako transferentzia-lizentzien arabera.

2. Egiaztapen horretan enpresa hartzailleak duen fidagarritasuna aztertu behar da, bereziki, enpresa horrek beste estatu kide batek emandako transferentzia-lizentzia bati esker jasotako produktuei, defentsarekin zerikusia dutenei, ezarritako esportazio-mugak betetzen ote dituzten ala ez. Enpresa hartzaillearen fidagarritasuna ondorengo irizpide hauen arabera ebaluatuko da:

a) Enpresak defentsa-jardueretan duen esperientzia. Horretarako, kontuan hartuko da, bereziki, enpresa horrek esportazio-mugak errespetatu ote dituen, gai horri dagokionez emandako ebazpen judizialak eta defentsarekin zerikusia duten produktuak ekoizteko edo merkaturatzeko baimenak errespetatu ote dituen, eta horrelako gaietan eskarmentua duen zuzendaritza ote duen.

b) Erkidegoaren barnean defentsarekin zerikusia duten produktuei dagokienez duen industria-jarduera; batez ere, sistemak eta azpisisistemak integratzeko gaitasuna.

c) Exekutibo senior baten izendapena, eta exekutibo horrek beregain hartzea transferentzia eta esportazio guztien ardura espezifikoa eta pertsonala.

d) aurreko c) idatz-zatian aipatzen den exekutibo seniorrak sinatutako agiria, enpresak jasoko duen edozein produkturen edo osagaiaren azken erabilerarekin eta esportazioarekin zerikusia duten baldintza espezifikoak betetzeko eta betearazteko beharrezko neurriak hartuko dituela ziurtatzen duena.

e) Enpresak hartutako konpromisoak biltzen dituen agiria, c) idatz-zatian aipatzen den exekutibo seniorrak sinatutakoa. Agiri horretan zehaztuko da enpresak arreta handiz emango diela agintari eskudunei beste estatu kide baten transferentzia-lizentzia baten bitartez esportatutako, transferitutako edo jasotako produktuen erabiltzaileei eta azken erabilerei buruzko informazio zehatza.

f) aurreko c) idatz-zatian aipatzen den exekutibo seniorrak berretsitako deskribapen bat, enpresak aplikatzen dituen transferentziak eta esportazioak betetzen direla frogatzeko erabiltzen duen barne-programa eta kudeaketa-sistema deskribatzen dituen. Deskribapen

horretan zehaztu behar dira transferentzien eta esportazioen kudeaketarako erabiltzen diren antolaketa-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak; enpresako arduraren katea; kontuak ikuskatzeko barne-prozedurak; langileen kontzientziazioa eta trebakuntza; segurtasun fisikoa eta teknikoa bermatzeko neurriak; erregistroen eguneraketa; eta transferentzien eta esportazioen trazabilitatea.

3. Ziurtagiriek ondorengo informazioa bildu behar dute:

a) ziurtagiria egin duen agintari eskudunaren izena;

b) hartzailearen izena eta helbidea;

c) hartzailea 2. paragrafoan xedatzen diren irizpideekin ados dagoela adierazten duen agiria; eta

d) ziurtagiria zein egunetan egin den eta ziurtagiri horren balio-epea.

Aurreko d) idatz-zatian aipatzen den balio-epea gehienez ere bost urtekoa izango da.

4. Ziurtagirietan ondorengo gaiekin zerikusia duten bestelako baldintzak ere adierazi ahal izango dira:

a) 2. paragrafoan aipatzen diren irizpideak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoa den informazioa eskatzeko baldintzak;

b) ziurtagiria bertan behera uzteko edo baliogabetzeko baldintzak.

5. Agintari eskudunek gutxienez hiru urtez behin egiaztatuko dute hartzaileak 2. paragrafoan aipatzen diren irizpideak eta 4. paragrafoan aipatutako ziurtagiriei dagozkien baldintzak betetzen dituela.

6. Estatu kideek aintzat hartuko dituzte beste estatu kideetan zuzentarau honek agindutakoari jarraituz egindako ziurtagiriak.

7. Agintari eskudunak jabetzen badira dagokion estatu kidean ezarritako ziurtagiriaren jabeak ez dituela 2. paragrafoan ezarritako irizpideak eta 4. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen, egokiak diren neurriak hartuko ditu. Neurri horietako bat ziurtagiria baliogabetzea izan daiteke. Agintari eskudunek hartutako erabakiaren berri emango diete Batzordeari eta gainerako estatu kideei.

8. Estatu kideek aldizkakotasun jakin batez argitaratu eta eguneratuko dute ziurtagiriak dituzten hartzaileen zerrenda, eta horren berri emango diote Batzordeari, Europako Parlamentuari eta gainerako estatu kideei.

Batzordeak estatu kideen ziurtagiria duten hartzaileen erregistro orokorra jarriko du herritarren eskura bere webgunean.

10. artikulua

Esportazio-mugak

Defentsarekin zerikusia dute produktuen hartzaileek esportazio-lizentzia bat eskatzen dutenean, eta beste estatu kide baten transferentzia-lizentziari esker jasotzen dituzten produktuek esportazio-mugak dituztenenean, estatu kideek egiaztatu behar dute hartzaileek beren agintari eskudunei muga horiek errespetatu dituztela eta, hala badagokio, jatorrizko estatu kidearen baimena lortu dutela jakinarazi dieten ala ez.

IV. KAPITULUA

ADUANETAKO PROZEDURAK ETA LANKIDETZA ADMINISTRATIBOA

11. artikulua

Aduanetako prozedurak

1. Estatu kideek egiaztatuko dute esportatzaileak esportaziorako beharrezko lizentzia guztiak dituela frogatu duela dagokion aduanan, esportazio-deklarazioa izapidetzeko defentsarekin zerikusia duten produktuen esportaziorako diligentziak egitean.

2. 1992ko urriaren 12ko 2913/92/EEE Erregelamendua, Erkidegoko Aduana Kodea onartzekoa [10], bete egin behar bada ere, estatu kide batek transferentzia-lizentzia baten bitartez beste herrialde kide batetik jaso dituen eta defentsarekin zerikusia duten beste produktu batzuetan txertatutako produktuen esportazioa bertan behera utz dezake, gehienez ere 30 laneguneko epean. Horrez gain, bestelako neurriak ere har ditzake produktu horiek bere lurraldetik ateratzea eragozteko. Kasu hauetan har daitezke erabaki horiek:

a) esportazio-lizentzia ematerakoan beharrezkoa zen informazioa kontuan hartu ez bada; edo

b) esportazio-lizentzia eman zenetik baldintzak aldatu badira.

3. Estatu kideek hala erabakiz gero, defentsarekin zerikusia duten produktuen esportaziorako ezinbestekoak diren aduanetako formalitateak, aduana jakin batzuetan soilik egin ahal izango dira.

4. Hirugarren paragrafoan aipatutako erabakia hartuz gero, estatu kideek Batzordeari jakinarazi behar diote zein diren horretarako prestatutako aduanak. Batzordeak Europar Batasunaren Egunkari Ofizialeko C seriean argitaratuko du informazio hori.

12. artikulua

Informazio-trukea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Batzordearekin elkarlanean, estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte beren estatuetako agintari eskudunen arteko koordinazioa eta informazio-trukea ezartzeko.

